

Euskadiko jaurtitzaile onenak Lasarte-Orian

Asteburu honetan, Euskadiko Bullshooter txapelketa burutu da Michelingo frontoian. Herri ezberdinetako dardo jaurtitzaileak lehian egon dira. Baina Lasarte-Orian ez gara makalak eta txapel eta domina ugari geratu dira bertan. /4



Doinu gogorak *Kudai* taldearen eskutik

Kudai taldeak bere hirugarren diska aurkeztu zuen *Jalgi* kafe antzokian

Larunbata gauean giro ezin hobea sortu zen Jalgi kafe antzokian. *Kudai* talde gipuzkoarrak martxoan argitaratutako hirugarren diskoa *Shah Mat* aurkeztera etorri zen.

Trash metal doinu gogorak eta lelo melodiak kafeantzokia betetzen zuten gazten gozameneko.

Shah Mat diskoa

Izenburuak pertsieraz "jake mate" esan nahi du, eta kontzeptua Katherine Neville idazlearen *The Eight* liburuan oinarritua dago.

Taldearen lan helduena dela diote kideek, "ia atsedetik gabe, sekula egin dugun musika indartsuena aurki dezakezue, lelo melodikoei tartea uzten badiegu ere."•



Kudai taldearen doinu trash metalak entzun ahal izan ziren larunbata gauean Jalgin. Arg: Pedro B. Mayor Saavedra

Trebetasun handiko saioa

Donostiako Orkestra Sinfonikoko hari laukotearen emaldi paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten ostirala arratsaldean Manuel Lekuona Kultur etxera gerturatu ziren herritarrek. Kutxak babestutako kontzertu honetan areto nagusia musika klasiko betez. Laukoteak aukeratutako egitarauari esker, musikarien trebetasun handia ikusi ahal izan zen. Argi geratu zen taula gainean zeuden DOS laukoteko kide gehienak Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak direla. Laukoteko kideetako bat, gainera, Tomas Ruti lasarteoriatarra zen. Kontzertu atseгина, beraz, hari laukoteak eskaini zuena. •



KIROLA/ 2

Texaseko jubenilak kopako lehiaketan aurrera

KIROLA/ 5

Gotzon Huegunek Errenteriko Artisua azokan saria eskuratu zuen

EUSKARA/ 5

Udaltop euskara zerbitzuen Topaketak izan ziren herrian

Aukera paregabea!



Mendigorria + Udako Txokoak !

Uztailaren 3tik 14ra
Mendigorria aterpean
egon eta gero...



...uztailaren 16tik 30era
abentura eta kirola
Udako Txokotan

1997 eta 2000 bitartean jaiotakoentzat, 256 euroren truke!

Ttakun • Geltoki kalea 4, 943 371448

Texaseko jubenilak koparen bila

Mundaroren aurka zuen partida bakarreko kanporaketa luzapenean erabaki zen

TXINTXARRI

Denboraldi bukaera iristear dago federatutako futbol taldeentzat. Igoera faseak eta kopa txapelketak finalerara iritsiko dira aurki eta horietan Lasarte-Oriako taldeak sartzen saiatuko dira. Horietako bat Texas Lasartearrak taldeko I. jubenil taldea dugu.

Lehenengo fasea bukatu eta kopa txapelketan sartu zen. Lehiaketa honetan, aldiz, bere taldeko bigarren postua eskuratu eta azken faserako txartela lortu zuen.

"Kopako ligaxkan ezagutzen genituen taldeak egokitu zitzaizkigun. Hasieran, zigortu asko genituen eta jokalaririk horiek itzuli zirenean pixkanaka berdinketa bat eta gero irabazitako partidak. Egia

esan partida errazak izan ziren. Aurrerago, Urnietaren aurkako partida etxean gutxi-gatik irabazi genuen eta Intxurre aurkakoa galdu. Normala da hartxintzar zelaietara ez baikaude ohituak. Eta gero Urnietaren aurka ere galtzeak, taldeko bigarren geratzea ekarri zuen," azaldu digu Asier Cuadrado Texas Lasartearreko jubenilen entrenatzaileak.

Partida

Lehenengo astelehenean, jakin zuen bere arerioa Mundarro La Salle izango zela eta atzo jokatu zuen kanporaketa Michelingo zelaian.

Lehenengo zati kaxkarra egin zuen arren, jubenilen taldeak 1 eta 0 irabazten zihonan lehenengo zatia bukatzean. Eta, gainera, gol bat balioga-



Texas Lasartearra taldeko jubenilek luzapeneko bigarren zatian eskuratu zuten final laurdenetarako txartela.

betu zien epaileak jokoz kanporatit.

Bigarren zatiko hasieran aukera gehiago izan zituen Texasek eta markagailuan 3 eta 0 jarri zen.

Baina minutuak aurrera egin eta Mundarro gora joan zen eta hamar minutu behar izan zituen partida berdintzeko.

Era honetara, partida luzapenera iritsi zen eta bertan erabaki zen gutzia. Lehenengo zatian bi taldeek aukera ugari izan zituzten aurreratzeak, baina bigarren zatiko 7. minu-

tuan Texaseko jubenilek txapelketan aurrera jarraitzeko

"Nik talde kaxkarragoa zela pentsatzen nuen. Martutenean jokatzeko ikusi nituen eta harritu naute. Mundarrok goitik baloia asko jokatzeko eta agin gaizki ibili gara horretan," onartu du Cuadrado eta zera atxiki du, "gainera, zorte txarra izan dugu eta taldeko lau jokalaririk garrantzitsuk min hartu dute eta batzuk aldatu behar izan ditut. Hau asko antzeman da eta, batez ere, luzapenean. Azkenean mutilek atera dute

partida aurrera. Animatuak daude, baina fisikoa gehiago landu behar dugu. Luzapenean larri ibili dira."

Final laurdena

Hurrengo astean final laurdenetan Kostkas taldea aurrean izango dutela ere aurreratu digu, "atzo 3 eta 5 irabazi zuen eta bera izango da gure arerioa. Intxaurrondon jokatu dugu partida eta ea aurrera jarraitzen dugun. Asteazkenean horretarako egingo dugu lan," aipatu du entrenatzaileak. •

Lehia handia herriko areto-futboleko finalaurrekoetan

Ostadar K.F.-ek antolatutako herriko areto-futboleko finalaurrekoetan joaneko partidak jokatu ziren atzo kiroldegian.

Baina ez ziren horiek play-offetako partida bakarrik izan, Buenetxea eta Ainhora taldeek larunbatean atzeratutako final laurdena jokatu baitzuten.

Partida gogor eta lehiatua Buenetxea 6 eta 1 gailendu zen eta iganderako finalerdietarako txartela lortu.

Finalaurrekoak

Igande goizean jokatu ziren finalaurrekoetan, ISU Leihok, Jordi, Izkiña eta Buenetxea taldeek finalerara iristeko dituzten gogoak ikusi ahal izan ziren.

Lehenengo finalaurrekoan, ISU Leihok eta Jordik partida borrokatua jokatu zuten.

Atsedendia 3 eta 0 iritsi ostean, ISUK lasai irabaziko zuela zirudien arren, bigarrenetan, Jordiko mutilek indarrak atera eta ia buelta eman zioten emaitzari. Azke-

nean, ISU 4 eta 3 gailendu zen.

Izkiña eta Buenetxea taldeetako jokalariek larunbatean liga edo herriarte txapelketa partidak jokatu zituzten eta ez zuten denbora askorik izan indarrak berreskuratzeko.

Beraz, partida orekatua izan behar zuen, baina Buenetxeak lortu zuen oreka hori puskatzea. Palomaresen taldeak,

errazago lortu zuen aterako bidea aurkitzea eta lehenengo zatia 0 eta 2 bukatu zuten.

Baina, lehenengo finalaurrekoaren antzera, bigarren Izkiñak gogor ekin zion eta ondorioz, 2 eta 3 izan zen azken emaitza.

Beraz, hurrengo astean ere norgehiagoka interesgarriak ikusteko aukera egongo da kiroldegian oraindik guztiak aukerak baituztute. •



Buenetxea eta Izkiña taldeek finalaurrekoan partida parekatu jokatu zuten.



Santa Ana Pala Txapelketako izen ematea zabalik dago

Aurten ere martxan da Santa Anako Pala Txapelketa. XXVIII. edizioa da aurtengoa, eta izena emateko epea irekita dagoela jakinarazi digute antolatzaileak.

Inskripzioa egiteko azken eguna maiatzaren 19a da, iluntzeko 20:00ak. Izena emateko interesa dutenek bi

tabernetan egin dezakete, Artizar tabernan edo Gure Etxea tabernan.

Honetaz gain, Txapelketari Okendo plazako frontoian emango diote hasiera, baina bertan aurrikusita dauden lanak kontutan hartuta, antolatzaileek ez dakite non bukatu dezaketin jokatzeko. •

Lasarte-Oria versus Andoni Egaña

■ Herriko Bertso Eskolak desafioa bota dio Andoni Egaña Euskal Herriko txapeldunari
 ■ Zarauzko bertsolariaren aurka arituko da maiatzaren 23an Arrieskaleta elkarte

Euskal Herriko bertsolari txapelketa jokatu da udazkenean eta bertsolariak motorrak berotzen hasi dira. Lasarte-Oriako bertso eskolak desafioa bota dio Andoni Egaña txapeldunari eta hau ez da kokiltzen denetakoa. Maiatzaren 23an gaueko 21:00etan jarri dute hitzordua: Arrieskaleta elkartearen burutuko den bertso afari batean lehiatuko dira egungo txapelduna alde batean eta herriko bertsolariaren taldea beste aldean.

Jon ALTUNA

Lau aldiz izan da Euskal Herriko txapeldun Andoni Egaña, 1993, 1997, 2001 eta 2005ean. Ez da historian zarauztarrak beste txapel dituen bertsolaririk. 1993tik bera izan da txapelketa nagusian onena, eta aurten bosgarren txapela eskuratzen saiatuko da. Kontrarik ez du esan behintzat Egañak. Baina aurretik beste dema bat gainditu beharko du.

Lasarte-Oriako Bertso Eskolak "Ezetz bosgarren txapela" erronka bota dio Egañari, eta txapelduna bertso eskolaren aurka lehiatuko da. Andoni Egaña bakar bakarrik arituko da eta Bertso Eskolako kideek denen artean osatuko dute bere aurka arituko den arerioa. Hau da, Eskolako partaide bakoitzak ariketa bat aukeratuko du, batzuk bakarrik arituko dira, besteak ofizioan, edo kartzelan, baina denak elkarrekin Egañaren aurka.

Arrieskaleta elkartearen maiatzaren 23an iluntzeko 21:00etan hasiko da bertso afaria. Saioak txapelketako egitura izango du, hainbat ariketa egin beharko dituzte eta azkenean afarian direnek erabakiko dute zein den desafioko nagusi. Ikusleek erabakiko dute zein den txapelduna.

Lasarte-Oriako bertso eskola txapeldunari aurre egiteko gai ikusten da. Ez ditu alperrik jorratu azken urteotan hainbat saio eta sariketa, GRak esaterako. Herriko bertsolariak ostegunero biltzen dira bi orduz eta denek elkarrekin indartsu daudela jakinarazi dute.

Menu berezia

Arrieskaleta elkarteak eta bertso eskolak antolatu dute afaria, eta menua zainduko dela aurreratu dute, otorduaren eta bertsoen gozamenaren elkarrekin eskutik joan daitezkeen. 25 euro balio du afariak, 70 lagunentzat dago tokia eta txartelak Arrieskaletan bertan ala Jalgibetan eskuratu daitezke.



1993tik Euskal Herriko txapelketa nagusi denak irabazi dituen Andoni Egaña herriko bertsolariaren aurka arituko da hilaren 23an.

“ Lasarte-Oriako bertso eskolako partaideek hainbat saio egiten dituzte urtean zehar eta txapeldunari aurre egiteko gai ikusten dira.

Arrieskaleta elkartearen asmoa urtero bertso saio bat antolatzeko da, beti ere, bertso eskolaren artean zehar daraman dinamika eta programazioarekin uztartuz. Horrela bien artean antolatu da aurten

aitatutako bertso afari eta desafioa. Afaria 21:00etan hasiko da eta saioa berriz gaueko 11etan martxan izatea espero dute antolatzaileek.

Udazkenean jokatu den Euskal Herriko txapelketan

berriro ere irabazteko hautagaietako bat, faborito nagusia bertsozale askorentzat, Andoni Egaña izango da.


Lasarte-Oriako Bertso Eskolako ordezkaria Unai Muñoa izango da. Amaia Agirre eta Miren Artetxek ere lortu zuten Euskal Herrikoan parte hartzeko txartela, Muñoa eta Agirrek Gipukoakoan eta Artetxek, aldi berean, Iparraldeko Xapelketan. •

Marrazki eta pintura ikasleen erakusketa Kultur etxean

Lasarte-Oria Bizilagun elkarteak antolatzen duen marrazki eta pintura ikasleen erakusketa ikusi daiteke Manuel Lekuona kultur etxean maiatzaren 15era arte.

Ikasturtean zehar haurrek, gazteek eta helduek egindakoa lanarekin erakusgarri dira kultur etxeko erakusketa aretoan eta kafetegian ikusi daitezkeen obrak.

“Ikasle askori lotsa ematen die egin duten lana erakustea. Baina ongi datorkie erakustea eta besteekin lana ikustea,” azaldu digu Oskar Tena irakasleak.



Marrazki eta pintura ikasleen erakusketa maiatzaren 15era arte ikusgai dago.

Erakusketa

Guasch, olio margoak, tenpera, grafitoa, itzalak, collagea eta margo akrilikoetan marraztutako paisaiak eta irudiak ikus daitezke lanetan.

“Ikasleak figuratibotik ateratzea zaila da, baina batzuk gauza berriekin ausartzen dira,

esate baterako, perspektiba berriak egiten. Baina dudarik gabe abstrakzioak txikiak lanak dira,” esan digu irakasleak.

“Testurak ere lantzen dira. Batzuk akrilikoak nahiago dituzte, nahiz eta normalean olio margoekin margotzen

den. Eta hasi berriei kolore biziak ezin zaizkie burutik kendu. Ni saiatzen naiz eta koloreak egiteko arauak ematen dizkiet” adierazi du.

Horretaz gain, ikastaroa harremanetarako lekua ere badela azpimarratu du, “ez da beti koadroak egitea.” •

Hauteskundetarako mahai arduradunak aukeratu dira

Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ostiralean, ohiz kanpoko bilkuran ekainaren 7an burutuko diren Europar Legebiltzarreko hauteskundetarako mahai kideak izendatu zituen.

Programa informatibo baten bidez mahai elektoraleko arduradunak zozketa egin zen alderdi politiko

ezberdinetako ordezkariak bertan zirela.

Era honetara, Lasarte-Oriako bozkatzeko egongo diren 23 mahaietako mahai buru, bokalak eta ordezkariak hautatu ziren.

Hurrengo egunetan, posta bidez, jakin araziko zaie aukeraturako herritarrei. •



Euskadiko txapelkunak Lasarte-Orian

■ Herriko talde eta dardo jaurtitzailak gogor aritu dira Euskadiko txapela eskuratzeko

Lasarte-Oriako taberna askotan dardo makina dago eta ziur batzuk dardoren bat jaurti duzuela noiz-bait, baina pentsatu al duzue noizbait lehiaketa batean parte hartzea? Herrian hainbat dardo- talde eta zaletu daude eta, asteburu honetan, Michelingo frontoian jokatu den Euskadiko Bullshooter txapelketan hauek lehia ikusteko aukera egon da.

Euskadiko txoko ezberdinetako dardo jaurtitzailak ikusi ahal izan ditugu egun hauetan Michelingo frontoian ospatu den Bullshooter txapelketan dardoak jaurtizten.

Bakarka, bikoteka edo taldeka, helduak, zein gazteak kategorian ezberdinetako 200 dardo jaurtitzaila bi egun eta erdi egun dira Euskadiko txapelketa eskuratzeko lehia bizian.

Dardos Easok antolatutako txapelketa ostirala arratsaldean hasi zen. Orduan ikusi ahal izan genituen, antolakuntzak ekarritako 42 dardo makinak eta txapelketak sortzen zuen jakinmina. Izan ere, egun hauetan herritar ugari

hurbildu dira txapelketako nondik norakoak ikusi eta ezagunak animatzera.

Herritar ugari

Baina ikusteaz gain, Lasarte-Oriako ordezkaritza ugari ere izan ditugu txapelketan.

Rincon del J, El Punto, Noski, Abend edo Also tabernetako talde eta kideak nor baino nor aritu dira Euskadiko txapelaren bat herrian gertatzeko eta batzuk lortu dute gainera.

Cricket modalitatean, Pedro Campos eta Roberto Cardoso eta Gorka Monroy eta Jon Merino dira bigarren eta hirugarren mailako Euskadiko txapelkun berriak eta

Roberto Arrogantek ere hirugarren mailako bakarkako 501 modalitatean eskuratu zuen txapela.

Haurrak ere

Helduez gain, haurrek ere parte hartzeko aukera izan zuten atzo arratsaldean Hiscore moduan, hau da, puntu gehien egiten zuen haurrak eskuratzeko txapela.

37 haurrek eman zuten izena eta zortzik bakarrik lortu zuten finalean sartzea.

Maila handia ikusi ahal izan zen eta gehienak lasarteoriatarak izanik, herrian etorkizuneko dardo jaurtitzaila ugari dagoela erakutsi zuten. •

Euskadiko Bullshooter Txapelketako emaitzak

BIKOTEKAKO CRICKETA

1. GO MAILA

- 1- Edu Bergara eta Patxi Gonzalez
- 2- Iñaki Mayordomo eta Sergio Molano
- 3- Agustin Cristobal eta Carlos Garbayo

2. MAILA

- 1- Pedro Campos eta Roberto Cardoso lasarteoriatarak
- 2- Alex Gomez eta Aritz Martin
- 3- Asier Zabalza eta Unai Pascual

3. MAILA

- 1- Gorka Monroy eta Jon Merino lasarteoriatarak
- 2- Juan Antonio Godoy eta Ivan Herrero lasarteoriatarak
- 3- David Trinkado eta Jose Maria Millares

EMAKUMEAK

- 1- Noelia Mendo eta Silvia Moneo
- 2- Isabel Rodriguez eta Maite Felipe lasarteoriatarak
- 3- Idoia Aguirre eta Nerea Campos

TALDEKAKO CRICKETA

1. GO MAILA

- 1- Gaztelubide - Ibarra
- 2- Parrita - Hernani
- 3- Iparhaizea - Pasaia

2. MAILA

- 1- Dardoka- Urnieta
- 2- Noski 1 - Lasarte-Oria
- 3- Drakkar - Bilbo

3. MAILA

- 1- Drakkar - Bilbo
- 2- Noski 3 - Lasarte-Oria
- 3- Unar Metal - Orio

501 BAKARKA

1. GO MAILA

- 1- Sergio Molino - Billabona
- 2- Carlos Garbayo - Donosti
- 3- Hugo Latorre - Bilbo

2. MAILA

- 1- Juan de Lucio - Donosti
- 2- Javier Salsamendi - Lasarte-Oria
- 3- Francisco Fuentes - Lasarte-Oria

3. MAILA

- 1- Roberto Arrogante - Lasarte-Oria
- 2- Fernando Albizu - Bilbo
- 3- Guillermo Macho - Bilbo

EMAKUMEAK

- 1- Silvia Moneo - Bilbo
- 2- Araya Rebollo - Lasarte-Oria
- 3- Isabel Rodriguez - Lasarte-Oria

Cricketa Bakarka, haurren hiscore eta 701 hiruko mistoaren emaitzak ezin izan ditugu eskuratu erredakzioa itxi baino lehen.



Giro ezin hobea egon zen Michelingo frontoian asteburu osoan. Herritar ugari bildu zen dardo jaurtitzailak animatzera. Heldu, zein gazteak gogor lehiatu ziren Euskadiko txapela eskuratzeko.

Jalai

cafe bar

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK

TEL.: 943 372760

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

EGUNEKO MENUA

Gotzon Huegun-en azken erakustokiak

- Errenteriko eskulangintza azokan bere lanaren kalitatea eta berrikuntza saritu dute
- Ekainean Suitzako Morges hiriko IX. Eskultura Simposiumean hartuko du parte

Artistak zein artisauek tailerrean bakarrik egindako lanak ezagutarazteko beharrezko ditu erakuslehoak. Gotzon Huegun eskultoreak horrelakoak bilatzen ditu, bere eskultura, mural edo egur landuak erakutsi eta lan berriei bidea irekitzeko. Errenteriko Eskulangintza Azokan jende asko ibiltzen zela esan zioten, bertara eraman zituen lanak eta lanik onenari saria eman diote. Bestalde, ekainaren 9tik 20ra Suitzara doa eskultura simposium batera. Mundu osoko beste 20 eskultorekin batera arituko da lanean Morges hirian. Nazioarte mailako erakuslehoia izango da beretzat.

JON ALTUNA

Gotzon Huegunek gerezki enbor baten azalean zizelkatutako "aquarium" bat izan da Errenteriko XXXI. Eskulangintza Azokako produkturik onena. Itsas azpiko mundua irudikatzen duen zutabe koloretsuaren kalitatea eta berrikuntza saritu dute Azokan parte hartu duten beste 50 artisauren lanen artean.

Aspalditik ari da Gotzon egunlangintzari bide berriak bilatzen. Aquarium-a egitean ere berritzen saiatu da, beste era batera lan egiten: normalean egurra euskarri lauetan lantzen da eta berak aldaketa bilatu du enbor borobilaren buelta osoa zizelkatuz. "Horretan ahalegintzen naiz, gauza berriak egiten, ez dadin egur taila beti kutxa lauki eta geometrikoak lantzearekin lotu". Gotzon Huegunek aitortu zigunez, etxe modernoetan egurrezko lanak jarri daitezkeela erakutsi nahi du. Egurra modu desberdinean lantzeagatik egin du apustu herriko eskultoreak eta bide berri egokia hartu duela dirudi. Sariak hori pen-tsarazten dio behintzat.

Lehenengo aldiz parte hartu du Errenteriko Azokan eta harrera oso ona izan dute bere lanek. Etxean zeukan enborrak eta bere adarbegiek itsas azpia

gogorarazten zioten eta hortik sortu zitzaion zutabearen ideia. Enborra berez erakargarria zen eta tailatua oso estimatua izan da ikusleen artean.

Saria gorabehera pozik da lasarteoriatarra. Hiru egunetan, zortzi mila lagunetik gora izan dira artisauek azokan eta arrakasta izan du. Aquarium-ean konkretatu dute saria, baina epai mahaikoek esan zioten sorta osoaren kalitatea saritu zutela: Eskultura pare bat, aurpegi bat, zenbait mural eta egurrean lehorte edo enbor pitzatua irudikatzen zuten testura batzuk erakutsi zituen enborrekin batera. Hain zuzen ere bere helburua hori zen, era guztietako lanak egiten dituela erakutsi. Eta erakuslehoia ona suertatu da bi enkargu atera baitzaizkio: aurpegi bat, eta panteoi batean jartzeko marmolezko azpirliebea, El Grekoren erlijio lan baten irudikapena. Beste mural handi bat ere egiten ari da eta beraz badu urte bukaera arte lanik.

Lehen aldiz izan da Azokan, lagun batek esanda. Izena eman argazki batzuk bidali eta aukeratu egin zuten. Eta ederki baliatu du aukera. Suitzako simposium baten parte hartzeko ere bidali zuen proposamen bat eta han ere hautatua izan da.



Gotzon Huegun-ek ia bi metroko altuera duen enborra zizelkatu eta aquarium itxura eman dio zutabeari.



Antzeko lana egingo du Suitzan.

Ekainaren 9an doa Suitzara Gotzon Huegun. Bere lana mundu mailan erakusteko aukera dauka. Geneva ondoko Morges hiriko IX. eskultura simposium-ean parte hartuko du.

Nazioarteko erakuslehoia

Mundu osoko hogeit hamar eskultorek parte hartuko dute nazioarteko simposium edo sariketean, besteak beste, Japon, Errusia eta Argentinatik joanak. Hogeit hamar herrialde ezberdinetako eskultoreek 15 egunetan bi metroko enborrean eskultura bana egingo dute eta bakoitzak beste bi eskultura erakusteko aukera izango du.

Prest dauzka Gotzon Huegun-ek eramango dituen bi

eskulturak eta han zizelkatuko duenaren maketa. Furgonetan lekua daukanez beste mural batzuek ere eramango ditu. Goizeko 8etatik arratsaldeko 7ak arte lan egin beharko du.

Hauek dira Gotzon Huegun-en azken erronkak. Hernanin dauka tailerra, bertan bizi da, gerora Nafarroako Azkarate herrian bere etxe-tailerra jartzeko asmoa badu ere.

Enkarguei esker bizi da, tarteka erakusketaren bat prestatzen du baina gustuko du, ahal bada, urtean behin kanpora horrelako sinposiumetara joatea: hautatua baldin bazara bertara joan eta jendearen aurrean 15 bat egunetan eskultura egiteko. Dakiena erakusteko klaseak ere ematen ditu. •

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

atorriko zerbata jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE-MONDRAGÓN MAIATZAK 28 - 17:30 osteguna 2.zikloa

AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATI MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna

AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

IRUN MAIATZAK 28 - 18:00 osteguna

AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

USURBILGO IEPFS

Energia berriztagarriei buruzko ikastaroak

Maiatzaren erdialdean Usurbilgo Lanbide Eskolan langile zein langabetuei zuzenduriko bi ikastaroei hasiera emango die *Eguzki-instalazio fotoboltaikoen muntaia eta mantentzea* eta *Eguzki indar termikoa*. Biek 30 orduko iraupena izango dute eta doan dira. Informazio gehiagorako 943 364 600 telefono zenbakian eskura daiteke. •

SAN PEDROAK

Ttikontronek dantzan egiteko aukera paregabea

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak eta *Xpression* kultur elkarteak *Ttikontronek* saioa antolatzen ari dira datorren ekainaren 29rako, San Pedro eguna.

Aldi berean, hau da, egun eta ordu berean udalerriko puntu ezberdinetan gozatu daitekeen musika elektronikoko mugimendua da. Era honetara, Lasarte-Oria dantzaleku handi bat bihurtzen da, giro eta estilo ezberdinekin, denak doan.

Honela, antolatzaileek deialdia publikoak egiten diete DJ bezala parte hartu nahi duen guztiei.

Eskaera helbide elektronikoa honetan, jokin@xpression.net, egin behar da maiatzaren 22a baino lehen.

Ondoren, antolakuntzako kideek parte-hartzaileen maila aztertuko dute eta, azkenik, zeintzuk parte hartuko duten erabakiko dute.

Zigor DZ

Era berean, *Jalgi kafe antzokian* maiatzaren 23an, larunbata, hilabeteroko *Ttikontronek* emanaldiaz gozatu ahalgo da. Oraingoan, *Zigor DZ*-ren funk eta hip-hop doinuak entzuteko aukera paregabea izango dute *Jalgira* gerturaten diren herritarrek. •

Hizkuntza transmisioa aztergai

■ Euskara zerbitzuen hobekuntza lortzeko haienbat ekintza burutu dituzte

TXINTXARRI

Ostiraleko TXINTXARRIN berri eman genuen bezala maiatzaren 8 eta 9an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako udalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eudelen laguntzaz, antolatutako Udaltop Euskara-zerbitzuen I. Topaketa burutu zen herriko kultur etxean.

Matrikulatuta zegoen jendea baina gutxiago etorri arren, 100 pertsona inguru bildu ziren udaletako euskara zerbitzutako, ikastolako, euskara elkarteko... ordezkarien artean.

I. jardunaldi hauetan, gai nagusi moduan, familiako hizkuntza transmisioa hautatu da Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako hainbat gaieraren artean.

Zerbitzuaren hobekuntza

Jardunaldi hauen xedea esperientziatik abiatuta, eta euskara zerbitzuen hobekuntzarako, batzuk besteengandik ikastea zen eta horretarako lan teoriekoak, ikerketa lanak eta esperientziak aurkeztu ziren bi egunetan.

Honela, maiatzak 7 ostegunetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko Mikel Zalbidiek *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE* hitzaldia eskaini zuen.

Esperientzi ezberdinak ezagutzeko aukera egon zen ostean.

Lehenik Bilboko Karmelo Ikastolako Karmele Aurrekoetxeak gurasoek ikastolan euskararen alde egin duten lana mintzo zen; Nafarroako euskara-teknikarien sareko Raul Lopezek Nafarroako udaletako esperientzia aurkeztu zuen eta, azkenik, Oarsoalde eskualdearen garapenerako elkarteko Jose Luis Agirretxek eta Jaione Urruzolak Oarsoaldeko hasierako plangintza



Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, EUDEL eta Lasarte-Oriako Euskara batzordeko kideek eman zitoten hasiera topaketari.

eta egoeraren arabera egin dituzten aldaketek mintzo ziren.

Ondoren esperientzien gaineko galderak egin ahal izan zituzten bertaratuak.

Bazkarirako tarte bat hartu eta gero Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAeko euskararen belaunaz belauneko transmisioa hitzaldia eman zuen.

Eta eguna bukatzeko, Soziolinguistika klusterreko kide den Pablo Suberbiola lasarteoriarrak eta Jon Aizpuru Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkariak bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketari buruz egin duten ikerketa-lanari buruz hitz egin zuten.

Ostiralean, berriz, Pello Jauregi EHuko irakasleak taldeetan erabiltzen den hizkun-

tzari buruzko hitzaldian adibide praktikoak egin zituen. Ikusle batzuk oholtzara igo eta konfiantza lortzeko dinamikak egin zituen.

Ostean Buruntzaldeko koordinazio batzordeko Iñaki Arruti, Pablo Suberbiolak eta Andoaingo Aita Larramendi eskolako kideek gure herrialdeko egoeraz hitz egin zuten.

Baina ez zen guztia teoria izan. Lan egin behar izan zuten lehenik binaka, gero launaka eta azkenik taldeka

Amaraier ekitaldian Unai Muñoa, Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga bertsoariak ponentzietako kontzeptuak erabili zituzten euskal kantu-tegiak abestien hizkiak aldatuaz.

Baina ez zen gauza horretan geratu, gazteleraz egin baitzuten bertsotan eta antolatuak, entzuleak eta fun-

tzionarioak izan baitziren erabilikotako gaiak.

Teknologia berrien laguntza

Jardunaldien osagarri moduan web gune bat jarri dute www.udaltop.com eta hemen informazioa emateaz gain, parte hartzaileen jarrera aktiboa bultzatu nahi izan da. Horretarako, hainbat material zintzilikatu da jardunaldien aurretik, parte hartzaileei, hizlariari galderak egiteko aukera eman zaie.

Lan egiteko modu berrizailer honen helburua, jardunaldietan entzuleen parte hartze aktiboa bultzatzea izan da.

Honela, antolatzaileek Udaltop jardunaldiak urtero egiteko asmoa adierazi dute eta hurrengoetan Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako hainbat gai jorratzeko. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa. Vanessa Gimeno-ren lanak dira eta batez ere pintura oihalean aurkituko duzue ikusgai dauden lanen artean. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, egun osoan zehar.



Erakusketa

LASARTE-ORIA BIZILAGUN ELKARTEKO marrazki eta pintura ikasleen lanak daude ikusgai. DOAN. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 15

Dantza

CONCERTO DESCONCERTO izena duen Centro Coreografico Galego, Entremans konpainiaren lan berria, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. SARRERA 6 EURO. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 20:00etan.

Antzerkia

HONOLULU LEKU BAT antzezlanaren izango da Gilkitxaro taldearen eskutik. Ekitaldi hau Kultur errotaren barne dago. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, 22:30ean.

Larunbata, 16

Zinea

KANPANILA ETA PETER PANEN ITZALA haurrentzako antzerkia



Garagardo Azoka ostegunean hasiko da

BURUNTZAZPI ELKARTEAK antolatuta VIII. Garagardo Azoka ospatuko da maiatzaren 14tik 17ra bitartean Basaundi Bailaran. Azoka irekita egongo da arratsaldeko 18:00etatik gaueko 12ak bitartean.

OSTEGUNETIK IGANDERA
BASAUNDI BAILARAN

eskainiko du Txalo produktzioak. SARRERA, 3,15 EURO. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan, EUSKARAZ

Astearte, 19

Hitzaldia

AMAGANDIK EDOSKITZEA, JANARIA BAINO ASKOZ GEHIAGO gaitzat hartuta hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok. KULTURETXEAN, 18:00etan, GAZTELANIAZ

Ostirala, 22

Kontzertua

IPARVENT FOLK TALDEAREN emaldia Gazteria eta Festak saiak eta Xpressionk taldearen arteko hitzarmenaren barruan. DOAN. MANUEL LEKONAK KULTURETXEKO KAFETEGIAN, 20:00etan.

Balioetan Hezi VI. Jardunaldiak

Giza balioak: zoriona lortzeko bidea

Astelehena, 11

Hitzaldia

CONCEPCION MEDRANO Garapen psikologia eta hezkuntza irakasleak Zoriontasuna filosofiatik hitzaldia eskainiko du.

GAZTELANIAZ

Astearte, 12

Hitzaldia

JAVIER ELZO Soziologia katedradunak Gizarte zoriontasuna hitzaldia eskainiko du.

GAZTELANIAZ

Asteazkena, 13

Hitzaldia

Lasarte-Oriako parrokoa den XABIER ANDONEGI Donostiako Erligio-zientzien Goi Mailako Institutuko zuzendariak Zoriontasuna bizitza perspektiba bezala hitzaldia eskainiko du.

GAZTELANIAZ

Osteguna, 14

Hitzaldia

Psikologo klinikoa den PATXI IZAGIRREK Zoriontasunaren ikuspegi psikologikoa buruzko hitzaldia eskainiko du. GAZTELANIAZ.

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN
19:30EAN, DOAN

ANT.: DANOK KIDE ELKARTEA

Oharrak

Zabaleta auzoko festak

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

Ate ireki egunak maiatzean

Usurbilgo Lanbide Eskolak urtero moduan Ate Irekien eguna antolatu du. Aurten, bi egunetan, maiatzaren 9an eta 16an goizeko 11:00etan, eskolako instalazioak zabalduko dira. Ate Irekien edo Lanbide eskolako informazio gehiago nahi izanez gero 943 364 600 telefono zenbakira deitu dezakezue.

Frontoi eta paddle pistako lanak hasiko dira

Gaurtik aurrera, frontoi eta paddle pista berriak eraikitzeke lanak hasiko dira udal kiroldegia ondoan. Hori dela eta, ezin izango da autorik utzi orain arte behin-behineko aparkalekua zen eremuan.

Kamisetak dekoratzeko ikastaroa

Ikastaroa maiatzaren 16an, 21ean eta 28an eta ordutegia larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta ostegunetan 15:00etatik 17:00etara izango da. Interesa duenak pasa dadila Ttakuneko bulegotik (Geltoki kalea 4), edo telefonoz deitu 943 371448.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info
txintzarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Eskutitzak

Euskal Herrian aldaketa politikoa eta soziala gauzatu dadin, Maiatzak 21ean guztiok kalera!

Jakina den bezala, EAEko gobernu berria osatzen ari da egun hauetan, Patxi Lopez buru duena. Izaera unionista izango duen gobernu horren bidez, konstituzionalistek, Lizarra-Garaziz geroztik marko juridiko-politikoa blindatu eta aldaketa politikoa garaizterako martxan jarritako estrategia konstituzionalistaren zerbizura jarri nahi dute EAE, aurretik Nafarroako Foru Komunitatea-rekin egindako zuten bezalaxe. Herritarren borondatea zapaltzen duten bi parlamentu eta gobernu autonomiko antidemokratiko ditugu.

Bestalde, langileok eta herri sektoreok, instituzioetatik eta patronaletik inposatutako eredu ekonomiko eta sozial neoliberalaren ondorioz, azken hamarkadetakotako krisi ekonomiko bortitzenaren ondorioak pairatzen ari gara.

Krisiaren oinarrian, bankari, espekulatuzaile, eraikitzaile eta abarrek, beren esanetara dauden klase politiko eta instituzioen ulertutasun eta kolaborazioari esker, urteetan zehar beren eskutan metatutako aberastasun ikaragarria dago; baita langileen gero eta esplotazio eta bizi baldintzen prekarizazio handiagoa ere.

Aldiz, patronalak eta beren esanetara dagoen administrazioak, langileok sortu ez dugun krisia guk ordain dezagun nahi dute; langileak kaleratuz, prekarie-

tate tasa biderkatuz eta oro har langileen eta herri sektoreen bizi baldintzak nabarmen kaskartuz. Kapitalismo neoliberalak gutxi batzuen negozioaren eta gehien esplotazioaren eta prekarizazioaren sinonimo da.

Langileok eta herri sektoreok aldaketa soziala behar dugu. Gure eskubideak bermatuko dituen eredu ekonomiko eta soziala behar dugu; hau da, gehiengo sozialaren behar eta interesen zerbizura izango diren politika ekonomiko eta sozialak.

Eta horretarako, aldaketa politikoa nahitaezkoa da. Euskal Herriak bere buruaren jabe izan behar du. Marko konstituzional-estatutarioa gaitzitu eta eskenatoki demokratikoa eskuratu behar dugu

Egun indarrean den marko juridiko-politikoak,

Euskal Herriaren burujabetza ukatu eta kapitalismo neoliberalak finkatu zuen eredu ekonomiko eta soziala gisa. Izan ere, marko hori ez zen Euskal Herriko langileen eta herri sektoreen behar eta interesei erantzuteko sortu, Neguriko Oligarken, Nafarroako kazikeen eta Ipar Euskal Herriko jauntxoaren interesak asebetetzeko bidez.

Ezker abertzalea ziur dago datorren Maiatzaren 21ak nabarmen utziko duela, trukaturako parlamentuen eta errealtatearen desitxuratutako argazkien gainetik, unionistak eta erregionalistak nazio zapalkuntza mekanismoak nahiz eredu ekonomiko eta sozial neoliberalak zaharberritzeko egiten ari diren saiakera guztien gainetik, Euskal Herriaren aldaketa politikoa eta soziala-

ren aldeko gehiengo bat dagoela.

Izan ere, ezker abertzalea da gehiengo horri proiektio eta perspektiba estrategikoa eta eraginkortasun politikoa eskain diezaiokien indar politiko eta sozial bakarra. Ezker abertzalea da aldaketa politikoa eta soziala errealtate bilaka dezakeen bakarra.

Horretarako, ezker abertzaleak dei egiten dio langile eta herritar orori datorren Maiatzaren 15ean aldaketa politikoa eta sozialaren alde, Lasarten arratsaldeko 18:30etan Okendotik abiatuta burutuko den manifestazioan, zein Maiatzaren 21ean burutuko den Greba Orokorean parte hartzea.

Lasarte-Oriako
Ezker Abertzalea



Ohiturak dionez, Azkorteke erromeria mezarekin hasi zen. Bertan herritar ugari bildu zen.



Jon Lasa eta Amalur eskolako trikitilariak ederki girotu zuten erromeria goiz osoan.

Erromeri paregabea Azkorteke ermitan

Eguraldia lagun, herritar ugari bildu ziren Ttakun K. E.k antolatutako erromerian

TXINTXARRI

Urtero legez, igande honetan Azkorteke erromeria antolatu dugu Ttakun kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz.

Lehen orduetako euriak eta lainoek ez zuten ezer onik iragartzen, baina lainoak irekitzen joan eta hamaiketarako eguzkia ageri zen.

Herritar ugari hurbildu ziren Azkorterera bai oinez, baita autobusez ere. Eta giro ederra sortu zen Amalur eskolako trikitilarien lanari esker.

Ohitura den bezala, lehenik meza ospatu zen Azkorteke ermitan. Bertan, Amalur eskolako trikitilariak eta Alboika abesbatzak meza girotzen lagundu zuten.

Mezatic atera eta prest

zeuden pintxoak eta ogitarte-koak jendeak indarrak berreskuratzeko.

Herri kirolak

Herri kirolak hasi baino lehen, Unai Muñoa eta Patxi Etxeberria ederki aritu ziren bertsotan.

Ostean, Idoia Etxeberria eta Beñat Telleria gazteak egin ziren harria jasotzen.

Idoiak bi jasoaldi egin zituen 113 kilo harriarekin. Hala ere, jasotzeko erarekin konforme ez zegoenez, bes te bi altxaldi egin zituen; Beñatek ere bi jasoaldi egi zituen, baina bere kasuan 100 kiloko harriarekin egin zuen lan.

Ondoren, Mugertza aita-semearen txanda izan zen. Bi aizkolari hauek enborra kolpe txuxiagotan nork mozten

zuen jarri dute lehia eta irabazlea Ugaitz semea izan da, 58 kolperekin.

Beñat Tellerik 75 kiloko harriarekin lan egin du ostein eta bi minututan 10 aldiz jaso du harria.

Segidan, Mugertza aizkolariet bertikalean enborra nork lehenago moztu aritu dira eta, oraingoan, Fausto aitak irabazi du.

Azkenik proba mista egin da. Bikoteak Fausto eta Beñat eta Ugaitz eta Idoia izan dira.

Erronka enbor bakoitzeko 62,5 kiloko harria 4 aldiz jaso eta sei enborrak moztu eta harria jaso oostean, 6 korte egin behar zioten bikote bakoitzak enbor bati trontzarekin.

Irabazleak Beñat eta Fausto Mugertza izan ziren. •



Idoia eta Beñat harri jasotzaileek eta Mugertza aizkolariet lan ederra egin zuten.



Proba mista ere egin zen aurten eta irabazleak Fausto Mugertza eta Beñat Telleria izan ziren.



Unai Muñoa eta Patxi Etxeberria er e ederki ibili ziren Azkorteke erromerian bertsotan.